DEBAko UDALA

2018SPLE00012
12.Bilera:EZ-OHIKOA 2018/11/15

# UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA
## ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 12
EGUNA: 2018/11/15 (Osteguna)
ORDUA: 19:30
TOKIA: Udaleko Pleno Aretoa.
HIZKUNTZA: Saioa batik bat euskera hutsean burutu zen.

**BERTARATUAK:**
Pedro Bengoetxea Loiola, Alkatea
Debarren Ahotsa udal taldea
Aitor Salegi
Ane Miren Egidazu
Marilu Albizu
Iñaki Esnaola (bozeramailea)

EH Bildu udal taldea

Maider Zubikarai
Aimar Lasa (bozeramaile)
Itziar Irizar
Jose Luis Albizu
Eli Urteaga

EAJ-PNV udal taldea
Cristobal Del Corte (bozeramailea)
Unai Lekube
Iñigo Cambronero

Idazkaria: Irma Domingorena

Nº : 12
DÍA: 15/11/2018 (Jueves)
HORA:19:30
LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento.
LENGUA DE LA SESIÓN: La sesión se desarrolla mayoritariamente en euskera.

**ASISTENTES:**
Pedro Bengoetxea Loiola, Alcalde
Grupo municipal Debarren Ahotsa
Aitor Salegi
Ane Miren Egidazu
Marilu Albizu
Iñaki Esnaola (portavoz)

Grupo municipal EH Bildu

Maider Zubikarai
Aimar Lasa (portavoz)
Itziar Irizar
Jose Luis Albizu
Eli Urteaga

Grupo municipal EAJ-PNV
Cristobal Del Corte (portavoz)
Unai Lekube
Iñigo Cambronero

Secretaria: Irma Domingorena

**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:**

**1. Itziarko Toki Entitate-Txikiaren aldaketaren haiserako onarpena, hala badagokio, Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko, martxoaren 17ko 2/2003 Foru arauaren III- tituluarekin bat.**

Pedro Bengoetxea alkateak, ez ohiko udalbatzaren zioa azaltzen ematen dio hasiera saioari.

Jakina den bezela, zure taldea ez dago Itziarko Entitate Txikiko diseinuarekin bat, bere jaiotzatik. Negoziaketa hilabete batzuk pasa ondoren gobernuko bere bazkidearekin akordio bat lortu du eta aginte elektoralean aurrera egin den einean ez da komenigarria atzeratzea aldaketaren proposamena.

Bileraren bilakaerari dagokionez, udal taldeek parte hartu baino lehen, Zigor Aizpurua auzo alkateari hitza emango zaio.

Orain bai, Pedro Bengoetxea alkateak bere proposamena gazteleraz aurkeztuko du.

"Bere onarpenerako aurkezten dugun aldaketa proposamenak kapitulu nagusitzat lurraldetasuna dauka. Hau azpimarratzen da, gertatu daitekeen etorkizuneko bereizketa posible baten kasuan, Deba bere hirigunearekin soilik geratuko litzatekeelako eta era honetan, bere garapenerako posibilitatea mugaturik geratuko litzatekelako.

**TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:**

**1. Acuerdo inicial, si procede, para la modificación de la entidad Local Menor de Itziar, de acuerdo con el título III de la Norma Foral 2/2003 de 17 de Marzo, reguladora de las demarcaciones municipales de Gipuzkoa..**

El Alcalde, Pedro Bengoetxea, inicia la sesión plenaria, en euskera, explicando los motivos del pleno extraordinario.

Como ya es sabido, su grupo no comparte el diseño de la Entidad Local Menor de Itziar, desde su creación. Tras meses de negociación ha alcanzado un acuerdo con su socio en el gobierno, por lo que a la vista de lo avanzado del mandato electoral, no es conveniente retrasar más su propuesta de modificación.

En lo referente al desarrollo de la sesión, antes que los grupos municipales intervengan, se va a dar la palabra al Alcalde pedáneo, Zigor Aizpurua.

Ahora ya sí, el Alcalde, Pedro Bengoetxea, presenta su propuesta en castellano.

"La propuesta de modficación, que presentamos para su aprobación, tiene como capítulo principal la territorialidad. Esta se subraya, porque ante una posible o futurible segregación, Deba se quedaría únicamente como núcleo urbano, coartando de esta manera su posibilidad de desarrollo.

Hori dela eta, mugen aldaketa proposatzen dugu, herriguneari Egia eta Arriola auzoak eta Industria Poligonoa gehituz.

Por este motivo, proponemos la variación de los límites, incorporando junto al núcleo urbano, los barrios de Egia y Arriola, además del Poligono Industrial.

Proposamen honek, aipatu auzoak gehitzera bideratua dagoenak, Deba hiriguneko garapenari jarraipena ematea suposatzen du. Gainera industri poligonoa Debarentzat eta baita eskualdearentzat industrialki elementu estrategiko bat izanik, Debako udalak bere osotasunean kudeatzera pasa beharko luke, administrazio nagusi bezela.

Proposamen honek beste aldaketa batzuk dakartza, aurrekontuari dagokiona adibidez. Hori dela eta Entitate Txikiak 100ean txikituko luke bere biztanleria eta lurraldetasunari dagokionez proposamenak suposatuko luke 80/20ko banaketa eta ez egungo 92/8koa.

Esta propuesta, encaminada a la incorporación de los barrios citados supone dar continuidad al desarrollo del núcleo urbano de Deba. Además, al ser el polígono industrial un elemento estratégico a nivel industrial para Deba, así como para la comarca, debe pasar a ser gestionado de forma integral por el Ayuntamiento de Deba, como administración principal.

Esta propuesta conlleva otras modificaciones, como son la relativa al presupuesto, ya que la Entidad Local Menor disminuiría en 100 el número de habitantes y en cuanto al territorio, la propuesta supondría un reparto del 80/20 y no del 92/8 que supone en la actualidad.

Transferentziei dagokionez, eskuordetutako eskuduntzak ez dira aldatzen baina bereak direnak, Dekretuan jasotzen den bezela, Itziarko Entitate Txikiaren eta Debako Udalaren akordio bitartez burutuko dira.

De cara a las transferencias, las competencias delegadas no varían y las propias como viene recogido en el Decreto, se irían realizando, mediante acuerdos entre la Entidad Local Menor de Itziar y el Ayuntamiento de Deba.

Aldaketa hau akordio batetara iristeko behin betiko konponbidea izan daitekeela uste dugu.

Consideramos que esta modificación puede ser una solución definitiva para llegar a un acuerdo.

Agerian geratu dadila, gobernu talde honek ez duela Itziarko Entitate Txikiarekin bukatu nahi, baizik eta zerbitzuen deszentralizazio bat burutu nahi du arrazoizko eta bidezko era batean.

Que quede de manifiesto que este equipo de gobierno no quiere acabar con la Entidad Local Menor de Itziar, sino que busca realizar una descentralización de los servicios de una forma más racional y equitativa".

Alkateak, Pedro Bengoetxeak, hitza hartzen du, oraingoan gazteleraz.

El alcalde, Pedro Bengoetxea, coge la palabra, ahora en castellano.

Onarpenera aurkezten dugun aldaketa proposamenak lurraldetasuna dauka kapitulu nagusi gisa. Hau azpimarratzen da, balizko edo gertagarri den segregazio baten aurrean Deba hirigune bezala soilik geratuko zelako, horrela bere garapen aukera mugatuz.

La propuesta de modificación que traemos para su aprobación tiene como capítulo principal, la territorialidad. Se subraya esto, ya que ante una hipotética o posible segregación, Deba quedaría únicamente como núcleo urbano, reduciendo así su posiblidad de desarrollo.

Arrazoi hau dela eta, mugak aldatzea proposatzen dugu, hiriguneaz gain Egia eta Arriola auzoak eta industrialdea sartuz.

Debido a este motivo, proponemos modificar los límites introduciendo los barrios de Egia y Arriola, así como el polígono industrial además del núcleo urbano.

Auzoak sartzera bideratutako proposamen honek Debako hirigunearen garapenari jarraipena ematea suposatzen du. Gainera, industrialdea Deban eta eskualdean industria mailan elementu estrategiko bat izanik, bere osotasunean Debako udalak kudeatua izatera pasa beharko litzateke, administrazio nagusi gisa.

Esta propuesta ecaminada a introducri los barrios pretende dar continuidad al desarrollo del núcleo urbano de Deba. Además, siendo el poligono industrial un elemento estratégico en Deba y en la comarca a nivel industrial, debería pasar a ser gestionado en su totalidad por el ayuntamiento de Deba, en calidad de administración principal.

Proposamen honek beste aldaketa batzuk dakartza, hala nola aurrekontuari dagokiona, udal auzoko biztanle kopurua 100 gutxiago litzatekeelako, eta, lurraldeari dagokionez, proposamenaren araberako banaketa 80/20 litzatekeelako, eta ez 92/8 orain bezala.

Esta propuesta conlleva otra serie de modificaciones, como por ejemplo, la relativa al presupuesto, ya que la población de la Entidad Local Menor sería de 100 menos, y de acuerdo al territorio, el reparto según la propuesta sería de 80/20, y no de 92/8 como es ahora.

Transferentziei dagokienean, delegatutako eskuduntzak ez dira aldatzen, eta propioak, Dekretuan

En cuanto a las transferencias, las competencias delegadas no cambian, y las propias, tal y como aparece en

azaltzen den bezala, egiten joango ziren, Itziarko Udal Auzoa eta Debakoa Udalaren arteko akordio bidez.

el Decrero, se irían ejecutando, mediante acuerdo entre la Entidad Local Menor de Itziar y el Ayuntamiento de Deba.

Pentsatzen dugu aldaketa hau adostasunetara heltzeko behin betiko irtenbidea izan daitekeela.

Pensamos que esta modificación puede ser la solución definitva para llegar a un acuerdo.

Argi gera bedi gobernu talde honek ez duela nahi Udal Auzoa suntsitzerik, baizik eta zerbitzuen deszentralizazioa era arrazional eta zuzenago batean egitea bilatzen duela.

Que quede claro que este equipo de gobierno no quiere destruir la Entidad Local Menor, sino que busca realizar una descentralización de los servicios de una forma más racional y directa.

......

Ondoren, Itziako Entitate Lokal Txikiaren auzo alkatea den Zigor Aizpuruari ematen dio hitzegiteko aukera. Honek, euskara hutsean hitz egiten du.

A continuación concede la palabra al Alcalde Pédaneo de la Entidad Local Menor de Itziar, Zigor Aizpurua, quien interviene íntegramente en euskera.

"Debako alkate, zinegotzi, idazkari, herritar agurgarriok:

"Estimados Alcalde, Concejales, Secretaria, ciudadanos:

Auzo alkate bezela ezohiko bilkura honetan entzuna izateko eskatu dut hitza hartzea. Aukera hau baliatuz gaur hemen ontzat eman nahi den txostenaren inguruan adierazpen batzuk egin nahi nituzke, Itziarko Auzo Udalaren izenean:

Como Alcalde pedáneo he solicitado pedir la palabra en este pleno extraordinario. Aprovechando esta opción, en nombre de la Entidad Local Menor de Itziar desearía hacer algunas declaraciones sobre este informe que hoy, aqui, se quiere dar como bueno.

1. Aurkeztu duzuen txostenaren funtsa ez da Itziarko Auzo Udalaren "modifikazio" soil bat; herritarrok, legedia kunplituz eta prozesu eratzaile baten ondoren abiarazitako instituzio legitimo bati hegoak moztu nahi dizkiozue. Debako udal gobernuaren interbentzio larria da, gehiengoaren boterea ezarriz.

1. El fundamento del informe presentado no es simplemente una "modificación" : se pretende cortar las alas a una institución legítima que ha surgido como consecuencia de un proceso creador y con el cumplimiento de la legislación por parte de los ciudadanos. La intervención del Ayuntamiento de

Deba es excesiva, imputándose demasiado poder.

2. Beste auzo udal bat da, udal gobernuko alderdien artean ezkutuan moldatua, baina ez auzotarrek eskatua, ez eta ere auzotarrekin adostua. Proposamen artifiziala da, ez du aintzat hartzen auzoen arteko berezko antolaketa eta ez du beregan jendartearen inplikaziorik.

2. Es otra Entidad Local Menor, creada a escondidas por partidos del gobierno municipal y no consensuada con los vecinos. Es una propuesta artificial, que no toma en consideración la organización entre los barrios y no consigue la implicación de la gente.

3. Gizarte zibilaren eskaerak eta arazoak bideratzea da alderdi politikoen zeregina. Itziarko Auzo Udal hau auzotarren gehiengo zabalaren erreklamazioatik sortu zen, hor daude orain dela lau urteko galdeketaren emaitzak: %72ko parte-hartzea, %96ko aldeko bozkak. Zuen "modifikazio" honek IAUko zein auzotarren eskaerari erantzuten dio? Non dago sujetu politikoa?

3. Es deber de los partidos políticos el encaminar las solicitudes y problemas de la sociedad civil. Esta Entidad Local Menor de Itziar surgió de la amplia reclamación de los vecinos, ahí están los resultados de la consulta de hace cuatro años: la participación fue del 72%, de los que el 96% fueron votos a favor. ¿Vuestra "modificación" sobre la ELM de Itziar a qué solicitud de los vecinos da respuesta? ¿Donde está el sujeto político?

4. Modifikazio honek ez du herritarren inolako parte-hartzerik eta eztabaida publikorik izan. Ez du jarraitu IAU-k bizitako prozesu herritar zabala, eta ez da zilegi honek hura ordezkatzea.

4. La modificación propuesta no consta de ninguna participación ciudadana ni de debate público. La misma no ha seguido el amplio proceso ciudadano vivido con la ELM de Itziar y no es lícito que supla dicho proceso.

5. Arriola eta Egia auzoak IAUren antolaketatik kanpo jarri nahi dituzue. Arriola eta Egiako auzotarrak ordea informatu ere ez dituzue egin. Arriola eta Egiako auzotarrek argi adierazi zuten zein den beraien borondatea. Non dago hortaz proposamen honen errespetu demokratikoa?

5. Se pretende dejar fuera de la ELM de Itziar a los barrios de Arriola y Egia. Ni tan siquiera se ha informado a los vecinos de Arriola y Egia. Los vecinos de Arriola y Egia dejaron claro cual era su voluntad. Por tanto, ¿dónde está el respeto democrático de esta propuesta?

6. Debako gehiengoaren desadostasuna hartzen duzue argudiotzat. Baina zein oinarri arrazionali erantzuten dio benetan desadostasun horrek? Ez ote dira oraindik lehen piztutako beldur eta gaizki ulertuak? Ia lau urte igaro direnean, bistakoa da Auzo Udalak ez diola inolako kalterik eragiten udalerriari. Oso bestela, harreman instituzionalak zabaldu eta dirulaguntzak ekartzeko tresna baliagarria dela erakutsi du. Bizi garen eremuan hobekuntzak ekartzeko balio du.

7. Era berean, ez da lurralde zatiketarik. Nahiz eta lurraldetasuna ikur gisa goratu duzuen hasieratik eta orain ere horrekin tematu zareten, toki entitate txikia ez da eredu territoriala. Zerbitzu eta eskuduntza batzuk kudeatzen ditu, antzekoak eta elkarren ondokoak diren auzoetako biztanleengan. Hauetariko hainbat zerbitzu lehendik datozkigu gainera. Inori bururatzen zaio esatea, adibidez, Itziarko anbulatorioaren barrutiak lurraldea zatitzen duela.

8. Auzotarrek Auzo Udalarekiko atxikipen argia erakutsi dute denbora honetan. Jorratutako bidearekiko iritzia baikorra da, ilusioa eta parte-hartzea ekarri ditu, eta kohesio-soziala bultzatu. Debako udal gobernuko kideek ere iritzi positiboa dute Itziarko Auzo Udalarekiko, hala adierazia digute behin baino gehiagotan.

6. Basáis vuestro argumento en el desacuerdo de la mayoría de los vecinos de Deba. Sin embargo, ¿a qué fundamento racional responde de verdad este desacuerdo?. ¿No serán todavia los viejos miedos y los malentendidos surgidos?. Cuando casi ya han pasado cuatro años, a la vista está que la Entidad Local Menor no genera ningún daño al Ayuntamiento. Muy al contrario, se muestra como una herramienta muy valiosa para ampliar las relaciones institucionales y atraer subvenciones. Sirve para atraer mejoras a la zona en la que vivimos.

7. De la misma manera, no es una escisión del territorio. A pesar de haber abanderado desde el principio la territorialidad y seguís obstinados en ello, la Entidad Local Menor no es un modelo territorial. Gestiona algunos servicios y competencias, similares y contiguas para los vecinos de los barrios. Algunos de estos servicios los gestionamos desde alntes de la creación de la ELM. ¿El ambulatorio del término municipal de Itziar divide, acaso, el territorio?.

8. Los vecinos han demostrado en este tiempo respecto a la Entidad Menor una clara implicación. La opinión positiva respecto al camino trazado, ha traido ilusión y participación, y ha impulsado la cohesión social. Los miembros del equipo de gobierno de Deba también tienen una opinión positiva sobre la Entidad Local Menor de Itziar, como así nos han transmitido en más de una ocasión.

9. Elkarbizitzarako tresna baliagarria dela erakutsi du, Deba eta Itziarren arteko harremanak sustatu ditu, eta pedagogia baliagarria egin du lehendik datozen mamuak gainditzeko.

9. Ha demostrado ser una herramienta valiosa para la convivencia, ha impulsado las relaciones entre Deba e Itziar, y ha aportado una pedagogía beneficiosa para superar los fantasmas del pasado.

10. Alderdi politikoen arteko kinkaren erdian jarri duzue berriro IAU. Hauteskundeak datoz eta Deba hiriguneko biztanleen botuak dituzue helburu. Ez da zilegi herritarren eraketaz eta parte hartzeaz eraikitako instituzioa trikimailu bezala erabiltzea berriro ere, programan agindutakoa bete duzuela esan ahal izate hutsagatik.

10. Habéis puesto a la ELM nuevamente en el centro del debate electoral entre los partidos políticos. Las elecciones se acercan y teneis como objetivo los votos de los habitantes del casco urbano. No es lícito utilizar de nuevo una institución formada por los ciudadanos y construida por la participación, como moneda de cambio, para poder esgrimir que cumplís con vuestro programa electoral.

11. Gobernatzeko bi ereduren arteko talka ikusten da modifikazio honekin. Auzolana, partehartzea eta batzarra ditu ardatz Itziarko Auzo Udalak. Dirudienez, Debako Udalaren burokraziak ez du maite gobernantza irekiaren bidea, eta erabateko kontrola ezarri nahi dio Itziarko Auzo Udalari, txosten berrian irakurritakoa egia bada. Prozesu herritarraz eraikitako antolaketa zapuztea dakar horrek, nahiz eta "modifikazio" xalo baten izenean nahi duzuen justifikatu.

11. Con esta modificación se percibe el choque entre dos modelos de gobierno. La ELM de Itziar tiene como eje el trabajo vecinal, la participación y la asamblea. Por lo que parece, la burocracia del Ayuntamiento de Deba no desea el camino de la gobernanza abierta, y quiere imponerle un control total a la Entidad Local Menor de Itziar, si es verdad lo leido en el informe. Ello conlleva una quiebra de la organización construida por los ciudadanos, a pesar de querer justificarlo con el nombre de una simple modificación.

12. Ondorioz, arrazoi guzti hauengatik ez dugu onartzen txosten berriaren proposamena. Itziarko Auzo Udala erabateko instituzioa den heinean beronen defensa irmoa egitea dagokigu Talde Eragileko arduradunoi, zentzugabekeria honen aurrean".

......

Ondoren, EH-BILDU Udal taldearen bozeramaileak, Aimar Lasak, hartzen du hitza, euskara hutsean:

"Legealdi honen helburua
Atsalde on,

Legealdi osoan zehar, behin eta berriro, askotan, galdetu diogu udal gobernu honi (DA+PNV) ze asmo zituen Itziarko auzo udalarekin. Eta udalaren mezua beti izan da, udalean daukaten gehiengoa erabiliko zutela, auzo udala aldatzeko.

Gai hau izan da Debarran Ahotsaren sorreraren izate nagusia, eta bagenekien egun hau iritsiko zela. Ez genuena uste da, egoera honetan, garai hauetan eta inongo prozesurik gabe iritsiko ginenik hona.

Aurkeztu duzuen txostena aztertzen hasi baino lehen, esan nahi dugu, aktak ondo jasotzeko, EHbildu bigarren indarra dala, lehenengo indarrak duen bezain beste zinegotzirekin, eta ez dala legegintzaldi guztian zehar deitua izan, gai honen inguruan inolako bileratara kontrasterik egiteko. Honekin argi utzi nahi dugu ez dala

12. Consecuentemente, por todas las razones expuestas, no aceptamos la propuesta del nuevo informe. Ya que la Entidad Local Menor de Itziar es una verdadera institución corresponde a los responsables del Equipo Impulsor su defensa categórica ante este sinsentido".

......

A continuación, el portavoz del grupo municipal EH BILDU, Aimar Lasa, toma la palabra íntegramente en euskera:

"El objetivo de esta legislatura

Buenas tardes,

A lo largo de todo la legislatura, una y otra vez, en muchas ocasiones, le hemos preguntado a este equipo de gobierno (DA+PNV) qué intención tenía con la Entidad Local Menor de Itziar. Y el mensaje del Ayuntamiento siempre ha sido que utilizarían su mayoría en el Ayuntamiento para cambiar la Entidad Menor.

Este tema ha sido la esencia principal de la creación de Debarren Ahotsa, y sabiamos que este día llegaría. Lo que no creiamos es que llegase en la actual situación, en este tiempo y sin ningún tipo de proceso previo.

Antes de empezar a analizar el informe, queremos decir, para que quede bien recogido en acta, que EH BILDU es la segunda fuerza, con tantos concejales como la primera y que no ha sido llamada a ninguna reunión a debatir sobre este tema en toda la legislatura. Con esto queremos dejar claro que no ha habido ninguna comisión en la que se

inolako batzorderik egon gai honen inguruan hitz egiteko.
Aurreko plenoan sortu zen batzordea, gaur egun auzo udala arautzen duen dekretuak proposatzen duen moduan, auzo udala eta udalaren arteko kudeaketa, koordinazio eta elkarlanerako. Batzorde honen funtzioak koordinazioa beharko luke, eta batzordea sortzeko ere Auzo udala ez duzue kontutan hartu.

haya debatido sobre este tema.

Respecto de la comisión que se creó en el pleno anterior, como propone el actual decreto que regula la Entidad Menor, para la gestión, coordinación y colaboración entre la Entidad Local y el Ayuntamiento queremos señalar que la fijación de las funciones de esta comisión exige coordinación entre ambas entidades y ni siquiera para crear la comisión habéis tenido en cuenta a la Entidad Local Menor.

Aurreko plenoan esan genuen bezala batzorde hau erabili nahi izan dezue, justifikatzeko gaur hemen aurkezten duzuen txostena batzordean landua izan dala esateko.

Como dijimos en el anterior pleno, habéis querido utilizar esta comisión, para justificar hoy que este informe ha sido tratado en la comisión.

Hau esanda historia piskat egin nahiko genuke:

Dicho esto, me gustaría hacer un poco de historia:

Auzo udalaren sorreraren funtsa, denok dakigun bezala, Itziartarren burujabetza nahia da.

El fundamento de la creación de la Entidad Local Menor, como todos sabemos, es el deseo de independencia de los vecinos de Itziar.

Auzo udalaren sortzeko ibilbidea 2004ean epaitegiak Itziarri herri izateko aukerak definitiboki ixterakoan hasten da.

El camino de creación de la Entidad Local Menor comienza cuando el juzgado cierra definitivamente en el 2004 las opciones para que Itziar sea municipio.

Ibilbide honetan, proiektu eta iritzi ezbedinak egon dira mahai gainean. 2010ean EA gobernuan zela, alderdien arteko mahai politikoa eratzen da, auzo udala izango denaren oinarriak lantzen hasteko.

En este camino, ha habido proyectos y opiniones diferentes sobre la mesa. En 2010, con EA en el gobierno municipal, se constituye una mesa política, para empezar a elaborar las bases de la que sería la Entidad Local Menor.

Mahai honek bere ibilbidea egiten du,

Esta mesa hace su camino, con la

2013ko urriaren 9an auzo udalaren osaketarako txostenari hasierako onespena emanez. Hasierako onezpen hau aho batez onartzen da, EAJ, EA, EZKER ANITZA, ARALAR, HERRIA SORTZEN eta ALTERNATIBAKO zinegotzi guztien, 13 zinegotzien, aldeko bozkarekin. Elkarrekin egindako lanaren fruitua izan zenaren satisfakzioarekin, burujabetzaren nahiari erantzun eta etorkizunerako Deba osoaren garapenean lagunduko zuen tresna adostu zuen udalak.

Gaur hemen bere onarpenerako aurkezten zaigun txosten honek, bere justifikaziorako bi idei nagusi erabiltzen ditu behin da berriz.

1. Auzo udalak Deba kaskoaren garapen urbanistikoa oztopa dezakela etorkizunean.
2. Poligono industriala Debarrok berreskuratu beharra, gure herria ekonomikoki bideragarria izan dadin.

Hau esanda, gobernuaren ardura izan beharko litzateke, herritar guztiek jakitea,

- Deba osoaren garapen urbanistikoa udalaren ardura dala soilik, Debako hondartzatik hasi eta Endoia edo Elorrixaraino.
- Poligono industrialarekiko, auzo udalak ez duela inongo eskumen edo konpetentziarik. Ez dugu berreskuratu behar beraz!
- Bideragarritasun ekonomikoari dagokionez, herritarrek jakin behar dute, rekaudazio, diru bilketaren eskumena, konpetentzia, Debako Udalarena dala. Eta jakin daizue auzo udala martxan den urte hauetan, Debako udalak inoiz baino diru gehiago duela.

aprobación inicial del informe para la creación de la Entidad Local Menor el 9 de octubre de 2013. Esta se acuerda por unanimidad, con el voto a favor de todos, de los 13 concejales de EAJ, EA, EZKER ANITZA, ARALAR, HERRIA SORTZEN y ALTERNATIVA. El Ayuntamiento lo acordó con la satisfacción por el fruto de trabajo conjunto realizado, respondiendo al deseo de independencia y como herramienta que ayudaría al desarrollo futuro de Deba.

El informe que se nos ha presentado hoy para su aceptación, utiliza una y otra vez para su justificación, dos ideas fundamentales:

1. La Entidad Local Menor puede obstaculizar el desarrollo urbanistico del casco de Deba en el futuro.
2. La necesidad de recuperar el polígono industrial, para que nuestro pueblo sea económicamente viable.

Dicho esto, es responsabilidad del gobierno municipal el que todos los ciudadanos sepan,

- Que el desarrollo urbanístico de todo Deba es únicamente responsabilidad municipal, empezando desde la playa de Deba hasta Endoia o Elorrixa.
- Respecto al polígono industrial, la Entidad Local Menor no tiene competencia alguna. Por tanto, ¡no necesitamos recuperarlo!
- Respecto a la viabilidad económica, los ciudadanos deben saber, que es competencia del Ayuntamiento de Deba la recaudación de impuestos. Y debéis saber que en los años en que se ha puesto en marcha la Entidad Local Menor, el Ayuntamiento de Deba

tiene más dinero que nunca.

Beraz, ez dago inongo justifikazio tekniko edo objetiborik txosten honetako arrazoiak justifikatzeko.

Por tanto, no hay ninguna justificación técnica u objetiva que justifique los argumentos de este informe.

Gai honek Deban, gatazka sozial bizia sortu zuen, aipatu dugun lehen onarpen hartatik aurrera.

Este tema generó en Deba un conflicto social vivo, desde aquel primer acuerdo de creación.

Gatazka sortu arazteko erabilitako argudioak, aipatutako hauek izan ziren, alderdien iritzia aldarazteraino.

Los argumentos empleados para generar conflicto, fueron los mencionados, hasta generar el cambio de opinión de los partidos políticos.

Iritziak legitimoak dira noski, baina iritzi hauek garai bateko mamuetan eta beldurretan dute oinarria. Beraz iritziak iritzi, auzo udalak ez du inongo eragin kaltegarririk debako garapenean. Eta hau ez dugu guk bakarrik esaten.

Las opiniones son legítimas, por supuesto, pero estas opiniones son producto de los fantasmas y miedos de otra época. Por tanto, a pesar de las opiniones mencionadas, la Entidad Local Menor no tiene ninguna influencia en el desarrollo de Deba. Y esto no lo decimos nosotros solamente.

- 13/07/2015 TSJPV. Denegar la medida cautelar para paralizar la creación de la ELM solicitada. "No acredita la merma de los servicios que se prestan a los debarras".
- 8/11/2016 TSJP. Desestima el recurso contencioso- administrativo contra el Decreto Foral que crea la Entidad Local Menor. "No hay perjuicio general: no hay informe de déficit o desequilibrio presupuestario".
- Pedrori erantzunez, "posible y futurible segregación...": "No se puede convertir en un proceso de segregación." Diputazioaren txostenaren pasartea.
- 

- TSPV el 13/07/2015 Denegar la medida cautelar para paralizar la creación de la ELM solicitada. "No acredita la merma de los servicios que se prestan a los debarras"
- TSJP el 8/11/2016. Desestima el recurso contencioso-administrativo contra el Decreto Foral que crea la ELM. "No hay perjuicio general: no hay informe de déficit o desequilibriio presupuestario."
- Contestando a Pedro, "posible y futurible segregación..." :"No se puede convertir en un proceso de segregación". Fragmento del informe de la Diputación.

Por tanto, dicho todo esto, este

Beraz, hau guztia esanda, txosten hau zuen iritzia da, baina besterik ez.

Beste modu batera esan dezakegu,

- Txosten hau egiterakoan nahi bezala egin dituzue mugak.
- %70etik gorako partehartzea izan duten bi galdeketaren emaitzak, alde batera utzi dituzue. Erabakitze eskubideaz hizketan ari garen garai hauetan.

- Txosten honek 155. artikulu famatua gogora ekartzen digu. Argi gera dadila nork agintzen duen hemen.

Txosten honek demagogian oinarrituriko pasarte asko ditu, baina badago bat larritu egin gaituena.

Gazteleraz irakurriko dugu, txostena gazteleraz sortua baita.

"El Ayuntamiento de Deba considera(...) y con carácter netamente urbano ubicados en una Entidad de carácter rural."

Dicho de otra manera "podrá suceder que los Debarras urbanos y cosmopolitas nos viéramos obligados a vivir entre ...
Horrelakoak irakurrita sortzen zaigun duda da, ea nor den segregazioaren bultzatzailea.

Gaur egun dugun auzo udalak, bertako biztanleen borondateari erantzuten dio. Galdetu al diozue bertako biztanleei aldaketarik nahi duten?

informe es vuestra opinión, sin más.

Podemos decirlo de otra manera,

- Al realizar este informe habeis determinado los límites como habeis querido.
- Habeis dejado de lado los resultados de dos consultas poopulares con una participación superior al 70%. En un momento histórico en el que debatimos sobre el derecho a a decidir.
- Este informe nos trae a la memoria el afamado artículo 155. Que quede claro quien manda aquí.

Este informe contiene muchos párrafos demagógicos, pero hay uno que nos preocupa especialmente.

Lo leeremos en castellano, pues el informe está escrito en castellano.

"El Ayuntamiento de Deba considera (..), y con carácter netamente urbano ubicados en una Entidad de carácter rural."
Dicho de otra manera "podrá suceder que los Debarras urbanos y cosmopolitas nos viéramos obligados a vivir entre .... La duda que nos surge al leer párrafos semejantes es quien es el impulsor de la segregación.

La Entidad Local Menor que tenemos hoy en día responde a la voluntad de los vecinos. ¿Habéis preguntado a los vecinos del lugar si desean algun cambio?

Lau urte hauetan auzo udalaren kudeaketa egokia izan da: baliabide ekonomiko berriak lortu ditu, auzoaren antolakuntzan lagundu du, kultur eskaintza oparoa eskaini digu, etb., EAJtak ere behin eta berriz goraipatu du kudeaketa hau, eta orain kontrakoa dioen txosten bat onartzera doa. Nola ulertzen da hori?

En estos cuatro años, la gestión de la Entidad Local Menor ha sido adecuada: ha conseguido nuevos recursos económicos, ha ayudado en la organización del barrio, nos ha ofrecido una oferta cultural abundante, etc.. el propio PNV ha alabado una y otra vez esta gestión, y ahora va a aceptar un informe que dice lo contrario. ¿Cómo entender esto?.

Orain, hauteskunde garai bezperetan berriro ere Itziar auzo udalaren afera jarri nahi duzue plazan.

Ahora, en vísperas de las elecciones nuevamente quieren sacar a la luz el asunto de la Entidad Local Menor de Itziar.

Aurreko legegintzaldian sortu zen tresnak itziartarren burujabetzaren nahiari erantzuten dio, eta esan bezala herri guztiaren garapena eta bideragarritasun ekonomikoa bermatzen du.

La herramienta creada en la legislatura anterior da respuesta al deseo de independencia de Itziar, y como hemos dicho, garantiza el desarrollo y la viabilidad económica de todo el municipio.

Angel Oiarbideren hitzak, atzo, Kursaaleko Quim Torraren hitzaldian: "Demokrazian sakontzen duten gizarteak ez dira zatitzen; gero eta kohesionatuagoak dira. Normaltasuna konkistatzen ari gara."

En la conferencia de Quim Torra ayer en el Kursaal, las palabras de Angel Oiarbide: "las sociedades que profundizan en democracia no se fracturan: están cada vez mas cohesionadas. Estamos conquistando la normalidad".

Beraz, Ehbilduren iritziz, auzo udala eta udalaren arteko elkarlanean eman behar dira pausoak etorkizunean ere. Eta guk bide honetan egingo dugu gure ekarpena.

Por tanto, en opinión de EH Bildu, se deben dar más pasos en la cooperación entre el Ayuntamiento y la Entidad Local Menor. Y nosotros haremos nuestra aportación en ese camino.

......

.....

Azkenik, EAJ-PNVko udal taldearen bozeramaileak hartzen du hitza, eukaraz lehenik eta gazteleraz ondoren.

Por último, el portavoz del grupo municipal EAJ-PNV, Cristobal del Corte realiza su intervención tanto en euskera, como en castellano:

"EAJ
ITZIAR ETA AUZO UDALA

"EAJk beti argi izan du eta horrela esan dugu behin eta berriz, ez gaudela landa eremuaren autogestioaren eta zerbitzuak deszentralizatzearen aurka. 2015ean Auzo Udal eredu honen aurka bozkatu genuen, baina ez Itziar eta gainontzeko auzoen aurka. Gatazka lurralde eremuan dago, eta denok ondo dakigu.

EAJtik bizilagunek auzoen autogestio eta dinamizazioan egindako lana balorean jartzen dugu, eta egindako lana aitortzen dugu. Deszentralizazioa Debako zerbitzuak landa eremuan hobetzeko eta hauek bizilagunei hurreratzeko tresna egokia dala frogatu da.

EAJtik ere Auzo Udal eredu honek debarren gehiengoan sortzen duen kezka ere ulertzen dugu, eta hauen agindua garbia izan zen azkenengo hauteskundeetan. Bi ikuspuntu hoiek ardatz izanik, Debarren Ahotsarekin, Auzo Udalari buruzko erabakia bertan behera utzi eta kitto egitea izan beharrean, Auzo Udal honen lur eremua aldatzea lortu dugu. Alde batetik, landa auzo gehienek, egokitzen zaizkien baliabideekin, kudeatzeko gai direla frogatu dituzten eskumenak mantentzen jarrituko dute. Bestalde, lur eremu proposamen berriak Debako udalerri osoaren etorkizuna eta bideragarritasuna era egokiago batetan bermatuko ditu.

"EAJ
ITZIAR y LA ENTIDAD LOCAL MENOR

"EAJ-PNV siempre ha dejado claro que no está en contra de la descentralización de servicios y la autogestión del medio rural. En 2015 votamos en contra de este modelo de ELM, no contra Itziar ni el resto de barrios. El conflicto está en la territorialidad y todos lo sabemos.

Desde EAJ-PNV ponemos en valor el trabajo realizado por los vecinos en la dinamización y autogestión de los barrios y reconocemos su trabajo. La descentralización se ha demostrado como una herramienta válida para mejorar los servicios de Deba en el medio rural.

Entendemos también la preocupación por esta Entidad Local Menor de una mayoría de debarras, y su mandato fue claro en las urnas. Teniendo claras ambas premisas, hemos consensuado con Debarren Ahotsa que en lugar de sólo de disolver la ELM vayamos a modificar la territorialidad de esta ELM. Por un lado, la mayoría de los barrios rurales mantienen las competencias que, con los recursos asignados, han demostrado ser capaces de gestionar, y por otro, la nueva propuesta de territorio equilibra de forma más adecuada el futuro y viabilidad del municipio de Deba en su totalidad.
Efectivamente, la inmensa mayoría

Hain zuzen ere, itziartar gehienek gaur egungo lur eremuaren alde bozkatu zuten, errez aurreikusi zitekeen bezela. Baina, ez al da egia ere debarren gehiengoa ez dagoela honekin ados? Arazoak denbora pasatzen uzten edo bestaldera begira ez dira konpotzen, irtenbideak proposatzen baizik.

de los itziartarras votó a favor de la actual territorialidad, como era fácilmente predecible, pero no es menos cierto que la mayoría de los debarras no está de acuerdo con la misma. Los problemas no se solucionan dejando pasar el tiempo o mirando hacia otro lado, sino proponiendo soluciones.

Gure jarrera eta iritziak hasieratik argi izan ditugu. EAJtik zentzumen onak irabaztea espero dugu. Guztiontzat egoki izango diren irtenbideak eta betirako izango diren akordioak lortzen saiatu gaitezen.

Tenemos muy clara nuestra postura desde el principio. Desde EAJ-PNV esperamos que impere el sentido común y tratemos de buscar acuerdos y soluciones que satisfagan a todos para siempre.

……

……

Pedro Bengoetxea alkateak, hitza hartu du.
Gure proposamenak harritu zaituztela entzuteak txundituta utzi nau. Bildu izan geran bakoitzean gaiari buruzko gure ikuspegia planteatu dugu.
Prozesutaz eta prozeduretaz hitz egiten duzu... Ze errespetu erakutsi zenuten zuek Deban jasotako 1.200 sinadurekin ? Sinatzaileen ordezkaritza batekin biltzea ere ez zenuten onartu.
Proposamen batzuetan jarrerak adosteko itxaropena genuen : hitzarmen proposamen bat planteatu genuen, baina ez zen gauzatu beste aldeak ez zuelako onartu.
Pentsaten duzuna pentsatzen duzula, Aimar, guk bai irakurtzen dugu proposatzen duguna.
Industrialdea eskualdeko elementu estrategikoa da.
Toki erakunde txikian eskuduntza asko uztera hel daiteke eta ez dakigu

El Alcalde, Pedro Bengoetxea, toma la palabra.
Que os sorprenda nuestra propuesta me deja estupefacto. Cada vez que nos hemos reunido hemos planteado nuestra visión del asunto.
Hablas de proceso, de procedimientos. ¿Qué respeto mostrasteis vosotros pro las 1.200 firmas recogidas en Deba ? Ni siquiera aceptasteis reuniros con una representación de los firmantes.
En algunas propuestas creímos poder consensuar posturas : planteamos una propuesta de convenio que no llegó a serlo por no ser aceptado por la otra parte.
Pese a lo que pienses, Aimar, nosotros sí nos leemos lo que proponemos.
El polígono industrial es un elemento estratégico comarcal.
Puede llegarse a delegar muchas competencias en la Entidad Local

noraino helduko den.

Askotan bildu gara, beti dauzkagu desadostasunak aurrekontuekiko : metodoa edo prozesua okerrak direla. Zuek prozesua hasi zenutenetik asko aurreratu da. Batzordea sortu dugu eta gure proposamena bertan aurkeztu genuen, marko egokia zela uste genuelako, baina zuek ez diozue zilegitasunik onartzen bertan aldaketaz hitz egiteko...

Aimar Lasa, EH Bildu udal taldeko bozeramaileak bigarren hitz-txandan hitz egin du. 8 zinegotzik 5en aurrean Toki erakunde txikiaren aldaketaz erabakiko duzue. Aldaketaren txosten justifikatzailea iritzi hutsa da, ez du ezer frogatzen. Toki erakunde txikiak ez du baldintzaten balizko segregazio prozesu bat.

Guk batzordearen sorrera eskatu dugu legegintzaldi hasieratik, uste dugulako Toki erakunde txikiaren sorrerako Foru Dekretuaren agindu bat dela uste dugulako. Guz ez duguna legitimatzen da batzordea izatea ELMa aldatzeko markoa.

Puntu honetara helduta, zein da jarraituko duzuen prozedura ?. Nola artikulatuko da herri kontsulta ? Non gauzatuko da ? Zer galdetuko da ? Lortutako erantzuna loteslea izango da ?

Irma Domingorenak, udal idazkaritzak, hitza hartzen du Foru

Menor y no sabemos hasta dónde se puede llegar.

Nos hemos reunido muchas veces, tenemos siempre desacuerdos por los presuepuestos : que si el método, que si el proceso, es erróneo. Desde que vosotros empezarais el proceso, se ha avanzado mucho. Hemos creado la comisión y presentamos nuestra propuesta en ella pro considerar que era el marco adecuado, pero vosotros no reconocéis legitimidad a la misma para hablar de la modificación.

....

Aimar Lasa, portavoz del grupo municipal EH Bildu interviene en segundo turno de palabra. 8 concejales frente a 8 váis a decidir sobre la modificación de la Entidad Local Menor. El informe justificativo de la modificación es pura opinión, no demuestra nada. La Entidad Local Menor no condiciona un eventual proceso de segregación.

Nosotros hemos pedido la creación de la comisión desde el inicio de la legislatura, porque creemos que es un mandato del Decreto Foral de creación de la Entidad Local Menor. Lo que nosotros no legitimamos es qu la comsión sea el marco para modificar la ELM.

Llegados a este punto, ¿Cuál va a ser el procedimiento que váis a seguir ? ¿Cómo se va a articular la consulta popular ? ¿Dónde se va a realizar ? ¿ Qué se va a preguntar ? ¿Va a ser vinculante la respuesta obtenida ?

La secretaria muncipal, Irma Domingorena toma la palabra para explicar el procedimiento regulado

Dekretuan araututako prozedura azaltzeko.

Bozketaren emaitza honako da :

Aldeko bozkak:
- 5 Debarren ahotsa
- 2 EAJ PNV

Kontrako bozkak
- 5 EH Bildu

Udalbatzak, gehiengo absolututz, Itziarko Toki Entitate Txikiaren aldaketaren haiserako onarpena adostu du, Gipuzkoako Udal Barrutiak erregulatzeko, martzoaren 71ko 2/2003 Foru Arauren III. Tituluarekin bat.

Besterik gabe, bilera 19:40tan bukatu zen. Eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota geratzeko, nik, idazkari naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egiten dut, lehendakariak ontzat emanda.

por la Norma Foral.

A continuación se procede a la votación :

Votos a favor:
- Debarren Ahotsa:5
- EAJ-PNV:3

Votos en contra.
- EH Bildu:5

El pleno de la corporación por mayoría absoluta,aprueba el acuerdo inicial para la modificación de la Entidad Local Menor de Itziar, d acuerdo con el Título III de la Norma Foral 2/2003, de 17 de Marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Guipuzcoa.

Sin más temas que tratar terminó la reunión a las 19:40horas. Para que conste lo tratado y acordado redacto y firmo esta acta con el visto bueno del presidente.

DEBAKO UDALA IDAZKARITZA OROKORRA SECRETARIA GENERAL AYTO. DE DEBA

Idazkaria/Secretaria
Irma Domingorena Zapirain

DEBAKO ALKATETZA ALCALDÍA DE DEBA

Alkatea/Alcalde
Pedro Bengoetxea Loiola